

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatuaren segmentazioa nahiko zabala da. Bezeroak talentudun pertsonak dira baina honen barruan, haien talentuen arabera adinaren arabera sailkatu ditugu eta bi talde atera zaizkigu:

- **Musikan talentua dutenak hamasei* urtetik hogeita hamar urtera arteko tarte jartzea erabaki dugu.** Mota honetako talentu bat garatzeko txikitatik praktikatu behar da. Gainera, jende gazteak, normalean, arrakasta handiagoa lor dezake.
- **Idazteketan eta marrazketan talentua dutenak hamasei* urtetik gora parte hartu dezaketela erabaki dugu.** Talentu hauek dauzkaten edozein pertsonak arrakasta handia izateko aukera dutelako.

Momentuz, enpresa hau Euskal Herrian soilik aurrera eramatea erabaki dugu. Geroago arrakasta handia lortzekotan hura zabaltzeko ahalegina egingo genuke.

* 18 urtetik beherakoek, gurasoen baimena behar dute. Gainera, 16 tik gora jarri dugu hemen sartzeko erabakia pertsona berak erabaki behar duelako eta ez haren gurasoek.